

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publiko Sailak bizi ohiturak osasuntsuagoak sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko haurren istripu lesioak prebenitzeko Zainbide Programa prestatu du.

Orain dela urte batzuetatik hona, "istripuak" dira haurren gaixotasun eta heriotzaren zergati nagusienetariko bat. Erditzean eta gaixotasunagatik hiltzen diren haurren kopurua sano jaitzi da azken urteotan; istripuek eragindako heriotzak eta istripuak, berriz, gorantz doaz. Esan daiteke gizartea gero eta prestatuago dagoela gaixotasunei aurre emateko, baina gero eta zailtasun handiagoetan aurkitzen dela gizarteak berak sortutako eguneroko bizimoduaren arriskuak ebitatzeko. Haurrak arrisku horietatik babesteko modurik eraginkorrena prebentzioa da.

Istripurik gehienak ebita daitezke ez baitira halabeharrez gertatzen; eta hurrek beren adin eta garapeneko etapa guztietan izan ditzaken istripu-mota ezberdinak ezagutzen badira, istripu horietariko asko prebenitu ez ezik beren ondorioak ere gutxitu egingo dira.

Hori guztia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Osakidetzako pediatrekin lankidetzan, Zainbide Programaren barruan, Haur-segurtasunerako gidak argitaratu ditu, orain erabilgarri daudenak Web honetan. Gidaliburu hauetan haurraren jaiotegunetik eskolara arteko segurantzako aholkuak biltzen dira.

Lehenengoan haurtxoaren ingurua deskribatzen da eta jaiotegunetik 6 hilabetera arteko istripuak prebenitzeko har daitezkeen neurriak azpimarratzen dira. Bigarrenean, 7-12 hilabete bitarteko arrisku-egoerak ikusten dira, eta azkenengoan, eskolara arteko gainerako haurtzaroa biltzen da.

Beharbada gidaliburu horiek irakurri ondoren, zalantzaren bat argitu edota gai horri buruzko informazio gehiago jaso nahi izango duzue. Horrela izanez gero, zeuon Osasun Zentro edo Kontsultategira jo dezakezue